

# 2 urteko umetxoa

ADITUEN ESANETAN MATEMATIKAK



**Testua: Leire Arana**  
Fisikan lizentziaduna eta 'Matematiketan.eus' webgunearen sortzailea  
**Argazkiak: Goiena**

Matematiketan.eus webguneaz ari naizenean, nire laugarren umea dela esaten dut maiz. Elikatu egin behar da, astean behin edo birritan, besterik ez bada ere. Itxuroso egon dadin eta nolabaiteko oreka izan dezan ere saiatzen naiz. Astero ordu batzuk eskaini behar izaten dizkiodala, alegia. Gaixotu ez dela egiten, hori dauka ona! Hala ikusita, umea baino gehiago, *tamagotchi*-a dela esan beharko nuke!

Kontua da egun hauetan betetzen dituela webguneak 2 urte txiki. Urtebetetzeek badaukate efektu bat balantzeak egiten hastekoa edo; hasierako asmoak oroitu, aurrera begiratu, planak egin... horretan harrapatzen nauzue.

Bi urte hauek kopuru hotzetara ekarrit, 135 artikulutik gora egin ditugula esan dezakegu; ikasketa-eta eta matematikako gai guztiekin lotutakoak. Sare sozialak eta webgunea bera kontatuta, ia 800 jarraitzaile kontatu ditzakegu. Matematikaz eta euskaraz ari garela kontuan izanda balekoa, nire ustez.

Jolas matematikoak azalduz, matematika momentuko gertaerekin lotuz, kontzeptuak ulertzen laguntzeko tresnak sortuz, material manipulatioak erabiltzeko aukerak azalduz eta matematika lantzeko ildo teorikoak

jorratuz jardun dugu; euskaraz eta debalde, Euskal Herri osoko etxe eta ikastetxeei begira.

## Bi urteotan zerekin egin dut topo?

Interesa, onespina eta honi heltzeko gogoia ikusi dut hainbat lagunengan. Hasteko, nire etxean, Arizmendi Ikastolan; baina baita ere guraso-elkarte, irakasle-eskola, eta beste ikastola eta eskoletako irakasle askorengan. Berritzeguneren batek eta, batez ere, Ikastolen Elkartek erakutsi dute planteamendu honi lekua egiteko asmoa.

Ilusioa eta aldaketarako gogoia toki askotan ikusi ditut; asko baikara aldaketa sakonen garaian gaudela ikusten dugunak.

Baina zalantza eta kezka etortzen dira ilusio horren ostean; nahia eta ezina. Eragile guztiekin errepikatzen dira sintoma hauek, gainera.

Zaila baitaukagu hezkuntzako kideok gauzak ongi egiten ari garela sentitu ahal izateko; fronte larregiri erantzuteko egoeran jarri gaitu gizarteak:

Curriculum bukaezinei eta kanpo probei erantzun beharra, umez betetako gelei eta bertan ikusten ditugun errealitate sozial eta emozional gordin eta anitzei erantzun beharra, *bullying*-a, adikzioak; gaitasunak landu beharra edukiak ahaztu gabe, asignaturekin baino gehiago proiektu integratuekin aritzeko beharra; arauekin baino gehiago hausnartuz jarduteko hautua, etxerako lanen inguruko eztabaidak, hezkidetzak, ebaluazio

matematiketan.eus  
matematikak eskuetara

HASIERA BA AL DAKIZU... FILOSOFIA GAIK ETAPAK ABN metodoa IKASTAROAK KONTAKTUA

« Matematika zientziaren mapa WODB bertsozalea »

DIC 13 2017 KALKULUA eta ZENBAKIAK, LH 2.zikloa, LH 3.zikloa Por larana

**Biderketa taulak ikasteko 40 jolas (ordenadorekoak)**

Biderketa taulak buruz eta seguru jakiteak asko bizkortu ditzake buruzko beste kalkulu batzuk. Beste eragiketa batzuk egiteko ere ia ezinbesteko edukia da. Hala nola, zatiketa, zatikien arteko eragiketak, ehuneko portzentaien kalkulua...

ESTADISTIKA  
GEOMETRIA  
KALKULUA eta ZENBAKIAK  
LOGIKA

hehitzzailea; IKTetan tamainan trebatu beharra, artea ezagutu, gozatu eta sortu, emozioen kudeaketa, sexualitateaz eta identitate sexual eta biologikoaz jarduteko beharra, mundu orekatuagoa eraikitzeko edo aldaketa klimatikoaren munduan bizitzen ikasteko ardura; euskara eta euskal tradizioetan hezi baina mundu globalari erantzutea ahaztu

## ZAILA DAUKAGU HEZKUNTZAKO KIDEEK GAUZAK ONGI EGITEN ARI GARELA SENTITZEKO

gabe, baratzea landu, janariak ere prestatzen ikastea ahaztu gabe, eta modu orekatu eta egokian jaten, eta gorputza zaintzen; taldean lan egiteko zein bakarka orekaz jarduteko prestatu...

**Erantzukizuna irakasleengan**  
Sentitu al duzue irakasleok bizi dugun zurrunbilo sentsazioa? Gizarteak gure bizkarrean jartzen du haren etorkizunaren pisua. Are gehiago, gizarteak daukan gaitzen konponbidea gugandik pasatzea espero da maiz.

Tira, bada, zurrunbilo horren ertz batean lupaz begiratu gero, gainera, nire matematika kuttunak ere aurkituko dituzue.

Eta *gainera* hitza hitz-gako bilakatzen da hemen. Hori baita irakasle askorentzako matematikaren kontu hau... gainera datorkien beste gai bat; formatzea eskatuko diona eta materiala sortzea, egitura ematea eta imajinazioz jokatzeko.

Azken urte hauetan zerbait ikasi badut, honako hau izan da, ordea: irakasleei larregi eskatzea dela. Eta ematen dute, hala ere, ahal dutena. Ari dira testuliburu zaharkituen babesa utzi eta itsaso zabalean murgiltzen.

Gaur, hemen jarri nahi dudana aldarrira, ordea, beste hau da: badaude gure herrian lan horri heltzeko aukerak eta moduak dituzten eragileak. Eragileak,

larritz... ERAGILEAK, alegia. Curriculumak zehazten, materialak sortzen eta kontu hauek arautzen aritzen direnak. Horientzako da deia eta horiek aktibatu nahi ditut. Izan ere, gure herrian hezkuntzaren itsasontziak benetan norabidea aldatzea nahi badugu, erabaki irmoak, ausardia eta, batez ere, baliabideak beharko ditugu.

Finlandia, Singapur, Andaluzia eta Kataluniari inbidiaz begiratzeari utzi eta eraldaketan gure bidea definitzeko ordua da. *Matematiketan.eus* txiki eta gazte honetan laguntzeko prest gaude. Ba al dago inor txikotari heltzeko prest? ■■■

Honako hau da *Matematiketan.eus* webguneak duen itxura.